

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

452/2022 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Diputatu nagusiarena, onesten duena kultura elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen gurasoen elkarteei eta ikasleen gurasoen elkarteen federazioei dirulaguntzak emateko deialdia, euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen. 2023ko ekitaldia

Diputatu Nagusiaren Sailak proposatzen du deialdia egitea dirulaguntzak emateko kultura elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen gurasoen elkarteei eta ikasleen gurasoen elkarteen federazioei euskararen bitartez sozializatzeko programak egiteko 2022ko abenduaren 1etik 2023ko azaroaren 30era arte.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea euskararen bitartez sozializatzeko programak egiteko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen irabazteko xederik gabeko elkarteei eta entitateei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei eta ikasleen gurasoen elkarteei eta haien federazioei emango zaizkien dirulaguntzen deialdia. Deialdia 2023ko ekitaldian egongo da indarrean, eta dekretu honen eranskinean (oinarriak) eta I-VI bitarteko eranskinetan (inprimakiak) zehazten da. Gehieneko zuzkidura 150.000,00 eurokoa izango da, eta honako foru dekretu hau aplikatuko da arautzeko: 23/2020 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez onetsi baitziren Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa).

Dirulaguntzen deialdi honetarako esleitutako urteko guztirako zenbatekoaren ehuneko 25 handitu ahal izango da zenbateko hau, 2023ko ekitaldian udalek edo kuadrillek euskararen bidez sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka bidez eman ondoren soberako kreditua geldituz gero.

Bigarrena. Dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontu proiektuaren 02401. G/335021/48100035 aurrekontu partidatik ordainduko dira ("Elkarte eta kolektiboentzako dirulaguntzak"; 150.000,00 euro). Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean.

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, organo eskudunak bidezko ebazpena hartuko du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete igaro baino lehen. Epealdi horretan berariazko ebazpenik hartzen ez bada, entitate interesdunek ezetsitatzeko ahal izango dute eskaera.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Diputatu Nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik

aurrera, behar den administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA

ERANSKINA

Dirulaguntza deialdia kultura arloko edo aisialdi eta denbora libreko irabazteko xederik gabeko elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen guraso elkarteei, kirol elkarteei eta ikasleen guraso elkarten federazioei, euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten 2023 ekitaldian

Lehena. Helburua eta xedea

Deialdiaren xedea da norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea kulturaren edo aisialdiaren eta denbora librearen irabazteko asmorik gabeko elkarteei, publikoei zein pribatuei, eta kirol elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen gurasoen elkarteei eta ikasleen gurasoen elkarten federazioei, euskararen bitartez sozializatzeko programak antolatzeke, garatzeko eta gauzatzeko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen 2022ko abenduaren 1etik 2023ko azaroaren 30era arte, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan. Dekretu horren bidez Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartu ziren.

Sozializaziotzat joko da pertsonen arteko interakzioa, presentziala zein teknologikoa, beti ere hizkuntza komunikazio bitarteko izanik. Beraz, laguntza hauen helburu nagusia da gizarte programa eta jardueri laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskal hiztunak eta horien sareak aktibatzeke, eta lurraldean euskaraz bizitzeko baldintzak eman daitezen aukerak sortzen jarraitzeke, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2019-2022) jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko 02401. G/335021/48100035 aurrekontu partidako zuzkidura baino gehiago ("Elkarte eta kolektiboentzako dirulaguntzak"): 150.000,00 euro. Beraz, dirulaguntzak emateko ezinbestekoa da kreditu egoki eta nahikoa egotea deialdia ebatzen denean.

Dirulaguntzen deialdi honetarako esleitutako urteko guztirako zenbatekoaren ehuneko 25 handitu ahal izango da zenbateko hau, 2023ko ekitaldian udalek edo kuadrillek euskararen bidez sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka bidez eman ondoren soberako kreditua geldituz gero.

Dagoen kopurua honela erabiliko da:

a) Ehuneko 49 egoitza Araban edo Trebiñuko enklabeen duten irabazteko xederik gabeko kulturaren arloko elkarte publiko nahiz pribatuentzat izango da. Elkarten federazioek ere jaso dezakete dirulaguntza.

b) Ehuneko 10 egoitza ez Araban ez Trebiñuko enklabean ez eduki arren Araban edo Trebiñuko enklabean ordezkartza duten irabazteko xederik gabeko kulturaren arloko elkarte publiko nahiz pribatuentzat izango da. Elkarteen federazioek ere jaso dezakete dirulaguntza.

c) Ehuneko 34 egoitza soziala Araban duten aisialdiko eta denbora libreko irabazteko asmorik gabeko elkarreentzat, kirol elkarreentzat, kirol federazioentzat, kirol federazioen elkarreentzat, ikasleen gurasoen elkarreentzat eta ikasleen gurasoen elkarreentzen federazioentzat izango da.

d) Ehuneko 7 kulturaren edo aisialdiaren eremuko irabazteko xederik gabeko elkarreentzat, kirol federazioentzat, kirol federazioen elkarreentzat, ikasleen gurasoen elkarreentzat, kirol elkarreentzat eta guraso elkarreentzen federazioentzat izango da, egoitza soziala Araban baldin badute (federazioetan elkartu daitezke), euskararen bitartez sozializatzeko pilotu proiektuak abian jartzeko 14-18 edo 19-29 urte bitarteko gazteekin, modu presentzialean zein teknologikoa. Balorazioan kontuan hartuko dira berrikuntzak. Programarik hoberenak jasoko du dirulaguntza. Horretarako, gutxienez 70 puntu lortu behar dira.

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa ezin da izan eranskin honen zazpigarren apartatuan zehaztutako ehunekoak baino gehiago. Elkarte edo entitate bakoitzak gehienez 10.000 euro jasoko ditu a), b) eta c) apartatuetan; d) apartatua ez da sartzen konputuan.

Baldin eta a), b) eta c) apartatuetako programetarako dirulaguntzak kalkulatu eta gero horietako batean gerakinik badago, balorazio batzordeak proposatu ahal izango du kopuru hori hainbanaketa handiena duen apartatura bideratzea.

Baldin eta d) apartatuko programetarako dirulaguntzak kalkulatu eta gero gerakinik badago, balorazio batzordeak proposatu ahal izango du kopuru hori a) apartatura bideratzea.

Hirugarrena. Entitate onuradunak eta baztertuak

Entitate onuradunak izango dira:

1. Egoitza soziala Araban edo Trebiñuko enklabean duten kulturaren arloko edo aisialdi eta denbora libreko elkarreak edo irabazteko asmorik gabeko entitateak, publikoak zein pribatuak (federazioetan elkartu daitezke).

2. Egoitza soziala Araban duten kirol federazioak eta kirol federazioen elkarreak, eta federazioan ari ez diren kirol elkarreak.

3. Egoitza soziala Araban duten ikasleen gurasoen elkarreak eta ikasleen gurasoen elkarreentzen federazioak.

Deialditik kanpo geratzen dira honako hauek, Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren uztailearen 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren eranskineko hirugarren oinarrian baztertutakoez gainera:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta haietan sartuta edo horiei atxikita dauden taldeak eta elkarreak.

b) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak edo, oro har, merkatari, teknikari, langile eta profesional elkarreak, guraso elkarreak eta horiei atxikitako, horietan sartutako edo horietatik sortutako taldeak eta elkarreak.

c) Estatutuetako helburuetan edo xedeetan kulturaren arlokoak, kirolaren arlokoak edo euskararen sustapena lehentasunekotzat jotzen ez den eta horretarako programak egiten ez dituzten elkarreak, taldeak eta bestelakoak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Diruz lagundu ahal izango dira 2022ko abenduaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean egiten diren euskararen bidez sozializatzeko programak.

Euskararen bidez sozializatzeko programak dira ezaugarri hauetakoren bat dutenak:

a) Hiztunak aktibatzea, eta, horretarako, euskarazko interakzio sozialerako neurri eta prozedura berariazkoak aurreikustea.

b) Interakzio soziala euskaraz egitea.

c) Euskararen erabilera sustatzea funtsezkoa izatea.

Programak, haien jarduera eta prozeduren bitartez diruz laguntzeko modukoak izango bada, euskara komunikazio ibilgailu izanik pertsonen gizarte interakzioa izan behar dute xede espezifiko eta nabarmena, aurrez aurre edo modu digitalean.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira lagundutako programaren zuzeneko gastuak eta zeharkako gastuetatik, diruz lagundu ahal izango dira koordinazio eta/edo kudeaketa-gastuak, aurkeztutako gastu aurrekontu osoaren ehuneko 10 arte (nominak eta abar).

Gainera, dirulaguntzarako onartuko dira hiztunak aktibatzekeo programak (Euskaraldia, TELP, Eusle, Zergatik ez...); programa hauek transmisioaren eremukotzat joko dira.

Diruz lagungarriak izango dira web orriak euskaratzeak eragiten dituen gastuak eta itzulitako edukia webgunera igotzeko gastuak, baina inoiz ez itzulpen gastuaren ehuneko 30ren gainera.

Mintzalagun, berbalagun eta antzeko programetan, zeinetan hainbat lagun aisialdian elkar-tzen baitira, aldiro eta era programatuan, euskarazko mintzapraktika informala sendotzeko, koordinazio gastuak osorik izango dira diruz laguntzeko moduko, hots, ehuneko 100 lagunduko dira.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dago-kienez, gastu hauek:

a) Euskaraz egin arren, euskararen bitartez sozializatzeko prozedurak jasotzen ez dituzten programak.

b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

c) Ordezkaritza, protokolo, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.

d) Inbertsio gastu direnak.

e) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

f) Ez dira dirulaguntzarako onartuko euskalduntzeko ikastaroek eta euskaraz alfabetatzeko ikastaroek eragiten dituzten gastuak.

g) Eskola orduetan ikasleentzat antolatzen diren jarduerak.

h) Ikastegietako barnetegien eskola-egutegiko mantentze, aisia eta begirale gastuak.

3. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artiku-luan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratazioak arautzen dituen araudian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino (hau da, zenbatekoa 15.000 euro edo gehiago bada BEZik gabe hornidura eta zerbitzu kontratuetan; eta 40.000 euro edo gehiago bada BEZik gabe obra kontratuetan), erakunde onu-radunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru hornitzaile, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Jasotako eskaintzak dirulaguntzaren zuriketan edo, bestela, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira. Jasotakoan artean, hautapena egin beharko da eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz, eta aukeratutako eskaintza merkeena ez denean, egindako aukeraren zergatia berariaz arrazoitu beharko da dirulaguntzaren memorian.

4. Entitate onuradunak hizkuntza sexismorik gabe erabili behar du agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoa.

5. Sars-Cov-2 koronabirusak eragindako egoera dela medio, eta ezin denez jakin etorkizunean zer egoera izango dugun, dirulaguntza deialdi honen bidez diruz lagun daitezkeen programak eta jarduerak aldatu ahal izango dira gauzatze epea bukatu aurretik, une bakoitzean hartu beharreko neurrien arabera. Halakoetan, entitate onuradunak eskaera bidali beharko dio Euskararen Zerbitzuari, eta hark aldaketarekin ados dagoela adieraz dezake, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egin ezean.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Euskararen Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute. Aldaketa horiek justifikatuta egon beharko dute, eta ez dute ekarriko inola ere proiektuaren aldaketa nabarmenik. Bestalde, diruz lagundutako gastuen aldean ezarritakoa bete beharko dute.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak I. eranskineko ereduaren arabera egin behar dira, eta Diputatu Nagusiari bidali behar zaizkio.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak.

– Eskaera, I. eranskinaren araberrakoa.

– Ordezkararen ahalordea elkarrearen izenean eskaera aurkezteko. Euskararen eta Gobernu Irekiaren Foru Zerbitzuan aurretik eskaeraren bat aurkeztu duten entitateek ez dute zertan berriro aurkeztu.

– Entitatearen indarreko estatutuak eta legez eratuta eta behar den elkarte eta entitateen erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duten agiriak. Euskararen eta Gobernu Irekiaren Foru Zerbitzuan aurretik eskaeraren bat aurkeztu duten entitateek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketa bat egin ez badute.

– Eskaera aurkeztu aurretik aurkeztu ez badira edo entitatearen bankuko datuak aldatu badira, entitateari alta eman behar zaio edo beraren datuak eguneratu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, "Arabako Foru Aldundiaren hirugarrenen alta edo aldaketa" izapidea eginez, hain zuzen ere <https://egoitza.araba.eus/es/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava>.

– Aisialdiko programetarako (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo antzekoak), zinpeko adierazpena konpromisoa hartzeko programan ariko diren langile guztiek (ehuneko 100ek) euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen eginda edukitzeko.

– Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera onuraduna izateko debekurik ez duelako ziurtagiria, pertsonarena edo entitatearena, lekukotza judiziala edo egiaztagiria erabiliz egin ahal izango da, kasuan kasukoa. Agiri horiek egiterik ez badago, entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da.

b) Berariazko agiriak, II. eranskinaren arabera. Bigarren oinarriko d) apartatuko proiektuetarako VI. eranskina bete behar da.

– Programa bakoitzaren deskribapena:

- Programaren eta beraren ekintzen helburua eta azalpena.
- Norentzat den (helduentzat, gurasoentzat, gazteentzat, familientzat, umeentzat, denentzat oro har...).
- Aurreikusten den parte hartzaileen kopurua.
- Behar denean, berdintasunarekin eta kultura aniztasunarekin zerikusi zuzena duten ekintzak.
- Euskararen bitartez sozializatzeko metodologia eta neurriak.
- Eremuak: 1- Gizarte erabilera (aisialdia eta kirola). Hitzun berriak (transmisioa). 2- Gizarte erabilera (administrazioa, gizartea eta ekonomia, komunikabideak eta ingurune digitala, kultura). 3- Hitzun berriak (helduen euskalduntzea).

• Programaren gastuen eta diru sarreren aurrekontu xehatua. Diru sarreren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, entitatearen ekarpena, Euskararen Foru Zerbitzuaren Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, egonez gero.

3. Entitate eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatu beharko du, Gobernu Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik (ALHAO, 23. zenbakia., 1997ko otsailaren 26koa). Aldiz, dirulaguntza 800 eurotik beherakoa bada, ez du hori frogatu beharko.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Salbuespen gisa, instrukzio organoak ezin baditu bildu aurreko ataletan aipatutako agiriak, interesdunari berriro aurkeztea eskatu ahal dio.

4. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunek eskaera modu telematikoan aurkeztu beharko dute nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez.

Entitate interesdunek baliabide elektronikoen bitartez egiten dituzten dokumentazio bidualak guztiak modu elektronikoa identifikatu behar dira Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik sortutako pertsona juridikoen baliabide elektronikoen bitartez.

Izapideak nahitaez modu elektronikoa egin behar dituzten pertsonak bertaratuta egiten badituzte edo entitate eskatzailearen identifikazio elektronikoa ez bada zuzena, errekerimendua bidaliko zaio aurkezpena zuzentzeko eta modu elektronikoa egiteko. Horretarako, zuzenketa egiten den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

Halaber, deialdi hori erantsitako ereduaren arabera eskaerak modu elektronikoa bete eta biduali beharko dira. Eredu horiek Arabako Foru Aldundiaren web orrian eskuratu ahal dira: <https://euskaraba.eus>.

Aurkezten diren kopiek dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko baina ez dute balioko. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

5. Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritako baldintzak eta aplikagarri den berariazko legerian eskatzen direnak, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epealdian akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, errekerimenduan esandakoa egin ezean, pentsatuko dela eskaeran atzera egin duela.

Seigarrena. Aurkezteko epealdia

Eskaerak aurkezteko epealdia hogeit hamar egun balioudunakoa izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du espedientea izapidetzeko eskumena.

2. Balorazio irizpideak.

Bigarren oinarriko a), b) eta c) apartatuetakoa jasotzaileentzat aurkezten diren proiektuak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

a) Jasotzaileak.

Gehienez, 20 puntu.

– Gazteak, nerabeak eta gurasoak: 16-20.

– Gurasoak eta seme- alabak: 11-15.

– Haurrak: 6-10.

– Helduak: 6-10.

– Herritarrak, oro har: 1-5.

b) Zeharkakotasuna.

Gehienez, 10 puntu.

– Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak: 1-5.

– Kulturartekotasuna sustatzen duten ekintzak: 1-5.

c) Programaren intentsitatea.

Gehienez, 15 puntu.

– Handia (jarraitua, sarri egiten dena, ez noizbehinka): 6-15.

– Ez oso handia (jarraipenik gabe, sarri egiten ez dena, noizbehinka): 1-5.

d) Sozializazio maila.

Gehienez, 10 puntu.

– Altua (erabilera soziala): 7-10.

– Bitartekoa (erabilera mistoa, soziala eta banakakoa): 4-6.

– Baxua (banakako erabilera): 1-3.

e) Euskararen erabilera.

Gehienez, 40 puntu.

– Euskararen erabilera soziala eta trebakuntza: (erabilera proaktiboa, prestakuntza eta gizarte-aktibazioa): 26-40.

– Euskararen erabilera soziala: (gizarte -aktibazioa): 11-25.

– Euskararen elikadura: (ikusleak: ikus-entzunezkoak, irakurtzea...): 1-10.

f) Lurralde oreka.

Gehienez, 5 puntu.

– Lurraldeko entitateak, Vitoria-Gasteizkoak ez besteak: 5.

– Vitoria-Gasteizko entitateak: 1.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera gehieneko dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

Puntuazioa	Dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa
0 - 30 puntu	0
31 - 40 puntu	40
41 - 50 puntu	50
51 - 65 puntu	60
66 - 80 puntu	70
81 - 100 puntu	80

Emaitzako zenbatekoen batura deialdiaren diru zuzkidura baino gehiago bada, jaso beharreko zenbatekoak hainbanatu egingo dira arestian azaldutako eskalan ezarritako ehunekoen proportzioan, deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

d) Apartatuko bigarren oinarriko proiektuak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

a) Zeharkakotasuna (gehienez, 10 puntu).

– Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak: 5.

– Kulturartekotasuna sustatzen duten ekintzak: 5.

b) Programaren kalitatea (gehienez, 30 puntu).

– Prestakuntza maila: 1-10.

– Intentsitate maila: 1-10.

– Aktibazio maila: 1-10.

c) Sozializazio proposamena (gehienez, 30 puntu).

– Komunikazioa: 1-10.

– Jarraipena: 1-10.

– Eragina: 1-10.

d) Berrikuntza teknologia berrien erabileran (gehienez,30 puntu).

– Altua: 21-30.

– Bitartekoa: 11-20.

– Baxua: 1-10.

Aurreko apartatuan ezartzen diren irizpideen arabera puntuazioak balorazio batzordeak berariaz egindako haztapen taula batean bilduko dira.

Ez dira kontuan hartuko 70 puntura iristen ez diren eskaerak.

Dirulaguntzak puntuazio sistema baten bidez banatuko dira. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa eskatzaile guztiek lortutako puntuez zatituko da. Horrela puntu bakoitzaren balioa zein den jakingo dugu. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eskaera bakoitzak lortutako puntuen kopuruaz biderkatuko da; nolana ere, emaitza horren eta gainerako diru sarreraren batura ezin da izan jardueraren kostua baino gehiago.

Zortzigarrena. Dirulaguntzari uko egitea eta ukapen hori jakinaraztea

Diruz lagundutako programaren bat egiteari uko egitea erabakitzen duten entitate onuradunek, hartarako dituzten arrazoiak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Aurreko apartatuan aipatzen diren ukoak modu elektronikoan aurkeztu beharko zaizkio Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzako Euskararen Foru Zerbitzuari Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna) edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legearen 16.4 artikuluan arautzen diren organoen erregistro elektronikoaren bidez.

Bederatzigarrena. Ebazpena

1. Euskararen Foru Zerbitzuak edukiko du prozedura instruitzeko eskumena.

2. Balioespen batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren burua Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrek Atenditzeko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria; hitza izango du, baina ez botorik.

Proiektuak ondo baloratzeko, instrukzio organoak datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkezten zaizkion dokumentazioei buruz.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita, bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen. Epealdi horretan berriazko ebazpenik hartzen ez bada, entitate onuradunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

5. Hainbanaketa egitearen ondorioz dirulaguntza murrizten den kasuetan, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunari eskatu ahal izango zaio eskaera berriro formulatu dezala, konpromisoak eta baldintzak eman ahal zaion dirulaguntzara egokitzeko.

6. Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoa emateko baldintzak ere. Halaber, berriaz jasoko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla eta ezespenaren arrazoia adieraziko da.

7. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

8. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatzen duenari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete igaro baino lehen.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamargarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Dirulaguntza honela ordainduko da:

– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, “justifikatu beharreko aurrerakin” moduan, ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da.

– Gainerakoa batera ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuak, justifikatu ondoren, eta azken ordaintza honi aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduta. Gastu guztien froga agiriak aurkezteko epealdia 2023ko azaroaren 30ean amaituko da.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2024ko otsailaren 22rako aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu direla frogatzen duten agiriak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, entitate onuradunek berariaz aurkakorik adierazi ezean, organo izapidegileak honako hauek eskatuko ditu: aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZren atxikipenak eta konturako sarrerak, horien ordaintzaren egiaztapena, eta 190 ereduak, eta atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena. Entitate onuradunak ez ditu zertan aurkeztu. Kontsulta horri berariaz uko eginez gero, entitate onuradunak agiri horiek aurkeztu beharko ditu justifikazioan.

2. Gastuak justifikatzeko, entitate onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, hain zuzen ere honako hauek arautzen dena: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena, 28.1 eta 2. artikulua; 23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatuen Kontseiluarena, Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartzen dituenak, 6. oinarria. Dirulaguntza eskatzen den programa bakoitzeko IV. eranskin bat bete beharko da.

IV. eranskinaz gainera honako hauek ere agertu behar dira justifikazio kontu erraztuan:

– Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituenak (III. eranskina).

– Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordaintzaren data.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Behar denean, aplikatu ez diren gerakinak eta horietatik sortutako interesak itzultzeko ordaintza gutuna.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira fakturak edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000 euro gaintzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu direlako frogagiriak.

Organo bideratzaileak egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza behar den xederako ez besterako erabili delako arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Egilea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

PFEZen (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa, fakturatzeko betebeharren arloko arautegia kontuan hartuz.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Fakturak, egin duen enpresaren zigiluarekin, zenbatekoa ordainduta dagoela adierazten dutenak.
- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.
- Fakturaren egileak sinatutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libretak, mugimenduak xehatuta.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar).
- Fakturarik eragiten ez duten gastuei dagokienez, gastua egiaztatzen duten froga balioko agiriak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2023ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Jasandako BEZeko kuotak diruz laguntzeko moduko gastu moduan konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza daukaten lurraldeko zerga administrazioarena aurkeztu beharko dute, zeinean BEZaren Foru Arauaren 20. hiru artikuluan aurreikusten den entitatearen izaera soziala aitortzen zaion, arau horren 20.bat artikuluko 12. eta 14. apartatuetan jasotzen den zergaren salbuespena aplikatzeari begira.

4. Egindako zeharkako gastua egiaztatzeko, 2. puntuan zerrendatutako agiriez gainera, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Gastuen taula bat eta entitate onuradunaren ordezkari gisa diharduenaren idazki bat, V. eranskinaren arabera, ziurtatzen atxikita izan dituen langileak, horien dedikazioa eta kostua; langileak zuzenean kontratatu badira, jatorrizko nominak eta Gizarte Segurantzaren RNT (“Relación nominal de trabajadores”) eta RLC (“ Recibo de liquidación de cotizaciones”) ereduak aurkeztu behar dira; zerbitzua beste entitate bati azpikontratatu bazaio, haren faktura/k.

- Mintzalagun, berbalagun eta antzeko programetan, programako parte-hartzaileen izen zerrenda, pertsonen eta taldeen kopurua, guztira, eta programaren iraupena.

5. Aisialdi programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak eta antzekoak), bigarren puntuan zerrendatzen diren agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Programa egingo duen entitatearen memoria; bertan zehaztu beharko da zer mailatan lortu duen programak euskararen bitartez sozializatzea.

- Egiaztagiria, ziurtatuz aisialdi programaren ardura duen monitorea, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.

– Programaren ardura duten langile guztiek (ehuneko 100) euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen eginda daukatela frogatzen duen dokumentazioa.

– Elkartearen lehendakariaren edo idazkariaren ziurtagiria, aisialdi zerbitzua emateko kontratatu diren monitoreen izen-abizenak adierazten dituena.

6. Justifikazio dokumentazioa modu elektronikoan aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legearen 16.4 artikuluan arautzen diren organoen erregistro elektronikoaren bidez.

Aurkezten diren koplek dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko baino ez dute balioko. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Entitateek bidalitako dokumentazioa egiazkoa delako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute (IV. eranskina).

7. Dirulaguntza ezingo da ordaindu harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen arte edo itzulketa bidez zorra kitatzen den arte.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.


Onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta laguntzarik eman dioten.

Hamabigarrena. Publikotasuna

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Gainera, eranskin digitalak eskuratu daitezke www.araba.eus eta www.euskaraba.eus web orrietan.

Euskararen Foru Zerbitzuak www.euskaraba.eus. web orrian argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskaraz sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte, kirol elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p>
